

BAKE TOPAKETA 2017

Bilbon, 2017.eko otsailaren 9an

Kaixo, lagunok!

Aurtengo Bake Topaketa **Zornotzan** izango da, **martiaren 4an** goizean, On Mario Gotzaina buru dala. Parrokian eta bere ondoan dagoen Karmeliten ikastetxean egingo dira ekitaldiak (trenaren geltokitik oso gertu), ondorengo hitzorduei jarraituz:

- 10:00 - Harrera eta hasierako otoitza (elizan)
- 10:30 - Tailerrak (ikastetxean eta parrokiako geletan)
- 12:30 - Otoitzaldia (elizan)

Aurtengo ekitaldi hau, iaz Gernikan izandakoaren jarraipena da. Orduan, *Bake eta Adiskidetzearen alde* izeneko agiria landu zan, gure tokiko Elizarentzako argibide eta eginbide nagusiak zehaztuz. Pentekoste jaiegunean argitaratu zan, abian edo kalera urten nahi dauan Elizaren ezaugarri lez, gure V. Ebanjelizatze Egitasmoan egindako aukeraren argitan.

Agiriaren azken atalean, gure ekintzak bideratu behar dituen jarrera bi azpimarratzen ziran: **bihozbarritzea** eta **errukia**. Hortik abiatuz, hainbat arlo aitutzen ziran. Eurotariko batzuk dira, hain zuzen, aurtengo topaketa egituratuko dabenak. Gogoeta eta alkarrizketa bultzatzeko asmotan, zortzi tailer antolatuko dira. Bihozbarritzea dala eta, honako biok: **gogora ekarri** eta **parkamena eskatu**. Errukiaren atalean, lau eratuko dira, eragindako sufrimenduaren inguruan: **biktimak**, **tortura**, **estortsioa** eta **presoen etxeokak**. Horrez ganera, beste biok: **parkatu** eta **bakerako hezi**.

Eraketa horretan ikusi daitekeenez, hainbat arlo landu nahi dira, bake eta adiskidetzarako zubiak eraiki edo sendotu nahian. Kartela eta lema ere ildo horretatik doaz: *Zubi-lana bakerako / Haren zauriek osatu gaitue* (1 Pe 2,24).

Tailer bakoitzean, testigantzak izango dira abiapuntua, ondoren alkarrizketa eta egoeraren fedezko azterketa egiteko eta, egoki ikusten bada, kristau alkartearentzat eta elizbarrutiarentzat proposamenak egiteko.

Tailerrak ahalik eta egokien antolatu ahal izateko, izena emon behar da aurretiaz. Bide bi dagoz: a) on line: <http://bilbokoelizbarrutia.poll daddy.com/s/baketopaketa2017> ; edo telefonoz: **94 679 00 80**.

Izenak emoteko epea **otsailaren 27ra arte** dago zabalik.

Tailerrak, bakoitza bere numeroarekin, ondorengo honek dira:

1. **Gogora ekarri**
2. **Parkamena eskatu**
3. **Biktimak**
4. **Tortura**
5. **Estortsioa**
6. **Presoen etxeokak**
7. **Parkatu**
8. **Bakerako hezi**

Gai honek – bake eta adiskidetzearenak – hainbat bihotzen zauriak dakarz argitara, gizartean eta komunikabideetan gaur egun horrenbesteko oihartzunik izan ez arren. Dei bizi bat da kristau alkartearentzat, berau ere Jesukristoren laztan osatzailea hartu eta zabaltzera bialdua da eta. Topaketa honek suspertu daizala gure gogo eta bihotzak, benetan bakezale eta bakegile izan gaitезan.

Felix Alonso eta Angel M. Unzueta
Bikario Nagusiak